

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Oyón-Oiongo Udala

Ayuntamiento de Oyón-Oion

2019





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa.....	9
III.3 Langileria.....	10
III.4 Kontratazioa.....	10
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak	11
III.6 Beste alderdi batzuk	11
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	12
V. URTEKO KONTUAK.....	15
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarrria zaion legeria	19
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	21
A.5 Langileen gastuak.....	23
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen eta inbertsioen kontratazioa	24
A.7 Emandako transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	25
A.8 Aurrekontuko zordunak.....	26
A.9 Kontratazioaren analisia.....	27
ALEGAZIOAK	29



ABREVIATURAS	39
I. INTRODUCCIÓN.....	41
II. OPINIÓN.....	42
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	42
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.	42
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	43
III.1 Presupuesto y contabilidad.....	43
III.2 Ingresos y recaudación.....	43
III.3 Personal.....	44
III.4 Contratación	44
III.5 Transferencias y subvenciones	45
III.6 Otros aspectos.....	45
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	46
V. CUENTAS ANUALES	49
ANEXOS	53
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	53
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	53
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	54
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	55
A.5 Gastos de personal	57
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones	58
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	59
A.8 Deudores presupuestarios.....	60
A.9 Análisis de contratación	61
ALEGACIONES	63

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 25a

Vitoria-Gasteiz, a 25 de marzo de 2021



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

11/1995 FA	11/1995 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzkoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALHAO	Arabako Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
FOFEL	Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
SPKL	9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Oiongo Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Oiongo udalerriak 3.386 biztanle zituen 2019ko urtarrilaren 1ean eta Udalaz gain, Labraza eta Barriobustoko kontzejuek ere udal zerbitzuak ematen dizkiete Oiongo herritarrei eta Kontzejuetako 191 biztanleei: uraren hornidura eta saneamendua; argiteria publikoa, hilerriak eta gizarte etxeak. Udala Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako kide da eta berak kudeatzen ditu zabor-bilketa eta oinarritzko gizarte zerbitzuak, eskualdeko enplegu-programa, eta beste udal zerbitzu batzuetan laguntza ematen du. Gainera, Arabako Errioxako Partzuergoak uraren hornidura eta saneamenduko udal zerbitzuak ematen ditu. Azkenik, Arabako Foru Aldundiak etxeko laguntza zerbitzua eta Gizarte larrialdietako laguntzak kudeatzen ditu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Kale-garbiketa kontratua 12 urterako esleitu zen 2009an; ordea, zerbitzu-kontratuen gehieneko iraupena 6 urtekoa da. Kontratu honek 113.121 euroren gastua eragin zuen 2019an. Gainera, prozedura negoziatua baliatu zen, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz (ikus A.9).
2. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu zituen 4 kontratu txiki hornidura eta zerbitzuetako kontratu modura izapidetzean prozedura ireki bitartez esleitu beharrean; kontratu horiek 407.366 euroren kostua eragin zuten (ikus A.9).

Epaitegi honen ustetan, Oiongo Udalak, aurreko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Oiongo Udalaren 2019ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	AURREKONTUKOA		ONDAREKOA	
	GELDIKINA		ONDAREA	
	DIRUZAINZA	AKTIBOA	PASIB.	GARBIA
A.4 Udalaren aldeko 2019ko UFFFren likidazioa, 2020an erregistratua	42	42	-	42
A.4 Finantzetaren desbideratzea: ondare-kontabilitatean erregistroa	-	-	862	(862)
A.6 Gastu modura aitortu gabeko 2019ko gastuak	(73)	-	67	(67)
GUZTIRA	(31)	42	929	(887)

2. Udalak ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetua osatzen duten elementuen xehakapenik egiten. Hori dela eta, ezin jakin dezakegu Aktibo ez arrunteko saldoek, 18,1 milioi euro, aktiboaren 2019ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Oiongo Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2019ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere jaso dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2019ko ekitaldirako aurrekontua Udalbatzak urte bereko otsailaren 13an onetsi zuen; ordea, arautegiak urtea hasi aurretik onestea behin betiko aurreikusten du.
- 2019ko aurrekontuko langileen eranskinak ekitaldirako onartutako plantilla zehazten zuen, ez, ordea, haien ordainsariak ez haborokinetarako eta aldi baterako langileentzako aurreikuspen globalak ere.
- Udalak ez zituen 2019an erregistratu gauzatutako gastu-esleipenak (D fasea) eta Kontuek ez dute kreditu hitzartuen berri ematen 2019ko abenduaren 31n, guztira 575.424 euro egin duten 3 obrena, alegia.
- Berme eta eskudiruko gordailuen aurrekontuz kanpoko kontuak 2015 baino lehenagoko diru-sarrerak barne hartzen ditu, 63.137 eurorenak; komeniko litzateke horien eskagarritasuna berrikustea.
- Urteko oroitidazkiak eman egin behar luke 2019an kiroldegiko eta udako igerilekuen diru-sarreraren berri; ez dira, baina, Udalaren Kontuetan zehazten zerbitzua kudeatzen duen enpresaren ordainketari aplikatzen zaizkiolako.
- Ekitaldi itxietan emandako dirulaguntzengatik kobratzeko saldoen baliogabetzeak ondare kontabilitatean erregistratu ziren 2019ko dirulaguntzen gastu handi modura, 228.648 euroren zenbatekoan. Zuzkiduren zenbateko garbia "Beste kontu-sail ez arrunt batzuk" idazpuruan erregistratu behar zatekeen.

III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- Aldeak azaleratu dira ekitaldi itxietako kobratzeko dauden sarreraren kontularitzako saldoen (522.608 euro) eta likidazio eta ordainagiriaren kontu xehatuen artean. 2015 baino lehenagoko saldoak, zeinak zuzkituak baitaude, berdindu egin behar lirateke AFaren Derrigorrezko diru-bilketa agentziakoekin.
- AFAko Derrigorrezko diru-bilketa agentziak atzerapenez bidali zituen kobratzeko zeuden ordainagiriak. 2019an Udalak 2016 eta 2017ko likidazioak bidali zituen eta 2018koak borondatezko diru-bilketa fasean jarraitzen zuten 2019ko abenduaren 31n.
- Udalak 2016an AFArekin udal zergak ikuskatzeko hitzarmenak onartu zituen, baina txosten hau idatzi dugun arte ez dira ikuskaritza-jarduerak garatu.



III.3 LANGILERIA

- Ez dago jasota 2019ko ordainsari igoera onartuko duen nahitaezko udalbatzaren erabakirik.
- Oinarrizko ordainsari kontzeptuengatik aparteko 2 pagetan kitatutako zenbatekoak ez datoz bat araudiak finkatutakoekin.
- Udalak 2019an 14 langileri Gizarte Segurantzako prestazioak osatu zizkien, baina nominak kitatzean ez zuen zehaztu osagarri horien zenbatekoa.
- Udaleko langileen Akordio erregulatzailerak laguntzak aurreikusten ditu erretiro aurreratuentzat, eta azken ordainketa 2018an egin zen. Erretiro aurreraturako pizgarriak ordaintzeko, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa onartu behar da.

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 3 kontratu nagusiak aztertu ondoren -1,6 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.9):

- Aztertutako 3 kontratuetan kontratazio-mahaia bokal bakar batek osatzen zuen, araudiak gutxienez 3 izatea agintzen duen arren. Gainera, kontratu batean (1 zk. espedientea) ez zen ageri bertako kideak izendatuko zituen Osoko Bilkuraren erabakia (A1 akatsa).
- Aztertu ditugun zerbitzuetako 2 kontratuetan (1 eta 2 zk. espedienteak), guztira 356.953 euroan esleitutakoetan, berme epea baliatu zen esleipen-irizpide modura; ordea, kontratu mota honetarako ez da aplikagarria (A2 akatsa).
- Kiroldegia, udako igerilekuak eta beste instalazio batzuk kudeatzeko kontratuan, 177.873 euroan esleitutakoetan, esleipen irizpide modura argindarraren eta gasaren gastuak bere gain hartzea barne hartu zen; ordea, Udalak ez ditu kudeaketa esleitu duten instalazioen kontsumoak bereizten. Gainera, ez zen aldizkari ofizialean argitaratu eman kontratua formalizatu izana (B akatsa).
- 1,2 milioi euroren obra-kontratua esleitzeko erabakia kontratatzailearen profilean argitaratu zen, baina eskaintzak baztertu zitzaizkien 2 lehiatzaile ez zitzairen jakinarazi (B akatsa).

Beste erosketa batzuk

- INDESA 2010 SL foru sozietateari areto jakin batzuk garbitzeko enkargua (112.553 euro 2019an) hitzarmen batean formalizatu zen eta publikotasuna eman behar zitzaiokeen kontratazioko plataforman.
- 2019an 105.530 euroren kostua izan zuten 4 kontratu erosketa txiki modura esleitu zirela ikusi dugu, prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren bidez izapidetu beharrean (ikus A.9).
- Kontratu txikiei ez zitzairen publikotasunik eman Kontratatzailearen profilean.



III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak mankomunitatean ematen ditu zabor-bilketako zerbitzuak eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak, eta Udalari laguntzen dio hirigintza-arloan. 2019an, 187.731 euroren ekarpenak egin zituen udalak. Udalbatzak onartu zuen lehenengo 2 zerbitzuak Kuadrillak ematea, baina ez zituen transferentziaren edo eskuordetzearen baldintza ekonomikoak arautu eta zehazki, ekarpenen kalkulua egiteko irizpideak.
- Udalerriko 2 kontzejuri egindako ekarpenak, guztira 41.733 euro, Udalbatzak 1983an onartutako hitzarmen batetik datoz; egokitu egin beharko litzateke, kontzejuen 1995eko foru araudira egokitzeko. Hitzarmenak aurreikusten du kontzejuek euren guneetako tokiko zergak bilduko dituztela eta Udalaren Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren diru-sarreretan parte hartuko dutela. Finantzaketa mota horiek ez daude aurreikusita kontzejuen indarreko foru araudian.

III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Ordainketa epeen gaineko hiruhileko txostenek erakusten dute Udalak 2019an egindako ordainketen % 9,3k gainditu egin zuela zehaztutako epea (30 egun onartu zenetik).



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera segidako taulan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuz., zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.).....	1.450	1.453	1.406	434	432	415
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	1.937	2.019	2.203	580	599	651
Ondare sarrerak (5. kap.).....	9	8	7	3	2	2
A. Sarrera arruntak	3.396	3.480	3.616	1.017	1.033	1.068
Langileria gastuak (1. kap.).....	814	828	793	244	246	234
Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	1.401	1.437	1.550	420	427	458
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	186	241	223	56	71	66
B. Funtzionamendu-gastuak	2.401	2.506	2.566	720	744	758
Aurrezki gordina (A-B)	995	974	1.050	297	289	310
- Finantza gastuak (3. kap.).....	(7)	(5)	(3)	(2)	(1)	(1)
Emaitza arrunta	988	969	1.047	295	288	309
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(277)	(277)	(100)	(83)	(82)	(30)
Aurrezki garbia	711	692	947	212	206	279
Inbertsio errealean besterentzea (6. kap.).....	-	29	645	-	9	190
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.).....	53	1.200	78	16	356	23
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(775)	(645)	(1.328)	(232)	(192)	(392)
- Kapital transf. eta dirulag. (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza	(722)	584	(605)	(216)	173	(179)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	266	1.553	442	79	461	130
Diruzaintza Geldikina	1.083	2.340	2.293	135	499	523
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	318	496	834	95	147	246
Zorpetzea 12.31n	377	100	-	113	30	-

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 6,5 egin dute gora 2017ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 3 egin dute behera, batik bat okupazio publikoko tasek behera egin dutelako, zati batean berdindu dena OHZen eta EIOZen sarreretan igoera izan delako.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 13,7 egin dute gora zerga itunduen partaidetzako diru-sarrerak % 15,1 hobetzean.



Funtzionamendu-gastuak: % 6,9 egin dute gora 2017 eta 2019 bitartean, xehakapen honekin:

- **Langileen gastuek** % 2,6 egin dute behera hirurtekoan, soldatak % 1,75 eta % 2,55% igo arren 2018an eta 2019an, hurrenez hurren, 2 langilek erretiroa hartu izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak** % 10,6 igo ziren 2017arekin alderatuta, batez ere landa-bideak egokitzeko eta udalerriko kaleak mantentzeko gastu handiagoa egin zelako.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak** % 19,9 hazi ziren, Koadrilari eta Kontzejuei egindakoak gehituaz, bai eta irabazi-asmorik gabeko elkarteei emandakoak ere.

Aurrezki gordina: erakundearen autofinantzaketa-maila neurtzen duen aldaki honek egonkor eutsi dio hirurtekoan; honenbestez, Udalak 2019an sarrera arrunten % 29 izan zuen eskura finantza zamari aurre egiteko eta inbertitzeko.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Udalak 2019an amaitu zuen kontrataturiko mailegu bakarraren amortizazioa. 947.651euroren aurrezki garbia sortu zen, 2019ko sarrera arrunten % 26,2, inbertsioak finantzatzeko erabilgarri.

Kapitalezko eragiketen emaitza: aztertutako aldiko inbertsioak 2,7 milioi eurorenak izan dira, hirurtekoaren diru-sarrera arrunten % 26,2, eta 1,3 milioi euroren kapital-dirulaguntzekin (Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta beste baliabide txiki batzuk) eta baliabide propioekin finantzatu dira.

Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina: % 162,3 egin du gora 2017ko abenduaren 31n zegoenak, izan ere 2018an eta 2019an sortutako aurrezki garbiak kapitalezko eragiketen emaitza gainditu du.

Ondorioa: Udalaren autofinantzaketarako gaitasunak, sarrera arrunten gainean % 29, egonkor eutsi dio aztertutako aldiaren eta FOFELetik eratorritako diru-sarrera nagusiak udal-azpiegituren hobekuntzak egiteko baliatu ditu. Berebat, azpimarratu behar da Udalak ez zuela zorpetzerik 2019ko abenduaren 31n eta data horretan Diruzaintza Geldikin erabilgarria sarrera arrunten % 23,1 zela. COVID 19aren ondorioz, 2020ko Kontuetan aurreikusitako ondorio nagusia FOFELen diru-sarrerak murriztea da, 312.505 euro, AFAk 2020an egingo dituen konturako entregak aintzat hartuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udaleko Kontu-hartzaitzaren txostenean egiaztatu da aurrekontuaren egonkortasunari buruzko araudia betetzen dela likidazioari dagokionez, eragiketa ez-finantzarioetan superabita lortu delako eta gastu-arauaren ondorioetarako gastu konputagarriak % 2 handitu direlako, 2019rako ezarritako mugaren azpitik (% 2,7). Udala zorpetu gabe zegoen 2019ko abenduaren 31n.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIERA	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Zerga zuzenak	A.3	1.018	-	1.018	1.077	988	89	106
2.- Zeharkako zergak	A.3	50	-	50	97	90	7	194
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	239	-	239	232	184	48	97
4.- Transferentzia arruntak	A.4	1.908	229	2.137	2.203	2.105	98	103
5.- Ondare sarrerak	-	8	-	8	7	7	-	88
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.4	516	-	516	645	297	348	125
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	68	-	68	78	12	66	115
8.-Aktibo finantzarioak	-	-	1.559	1.559	-	-	-	E/E
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		3.807	1.788	5.595	4.339	3.683	656	(*)108

(*) Egikaritzaren % kalkulatzeko, baliatutako geldikinak deduzitu dira, 1,6 milioi euroren zenbatekoan.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	ORDAIN. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Langileria-gastuak	A.5	628	363	991	793	772	21	80
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	A.6	1.569	76	1.645	1.550	1.436	114	94
3.- Gastu finantzarioak	-	5	-	5	3	3	-	60
4.- Transferentzia arruntak	A.7	230	1	231	223	147	76	97
6.- Inbertsio errealak	A.6	1.272	1.348	2.620	1.327	1.217	110	51
8.-Aktibo finantzarioak	-	3	-	3	-	-	-	E/E
9.-Pasibo finantzarioak	-	100	-	100	100	100	-	100
GASTUAK GUZTIRA		3.807	1.788	5.595	3.996	3.675	321	71
SARRERAK - GASTUAK					343			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./KOBRA./		AZKEN ZORRA
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Zordunak	A.8	2.124	(400)	926	798
Hartzekodunak	-	304	(10)	293	1
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA		(390)			



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	4.339
Obligazio aitortuak.....	3.996
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	343
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(390)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	(47)
Finantzaketako desbideratzeak.....	249
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	104
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	306

DIRUZAINZA GELDIKINA	ERANSKINA Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 19.1.1ean.....	1.682
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	(47)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak.....	136
DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31-N	1.771
Diruzaintza.....	1.301
Aurrekontuko zordunak..... A.8	1.454
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	1
Aurrekontuari ezartzeko dauden kobrantza eta ordainketak.....	(1)
Aurrekontuko hartzekodunak.....	(322)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(139)
DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31-N	2.294
Kaudimen-gabez. zuzkidura..... A.8	(523)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina..... A.4	(937)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	834
ZORPETZEA 19.12.31n	-

KONPROMISO-KREDITUAK	Euroak milakotan			
	Hasierako aurrek.	Alda-kuntza	Azken. aurrek.	Hitzar-tua
San Bizente Ikastolari dirulaguntza.....	-	380	380	380
GUZTIRA		380	380	380



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK.	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		18.083	17.255	ONDARE GARBIA	19.847	18.837
Ibilgetu ukiezina.....		11	15	Ondarea	31.244	31.244
Ibilgetu materiala		18.070	17.238	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(12.455)	(14.069)
Epe luz. finantza inbertsioak		2	2	Ekitaldiaren emaitza.....	1.058	1.662
AKTIBO ARRUNTA		2.232	2.122	PASIBO ARRUNTA	468	540
Zordunak eta finantza inbertsioak.....A.8		931	1.466	Epe motzeko zorrak	197	237
Eskud. eta bst. akt. lik. balioak.....		1.301	656	Administrazio publikoak.....	51	49
				Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz.	220	254
AKTIBOA, GUZTIRA		20.315	19.377	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	20.315	19.377

EKONOMIAREN ETA ONDAREAREN EMAITZA-KONTUA 2019 ETA 2018

Euroak milakotan

	2019	2018
Zergak.....	1.174	1.159
Tasak.....	230	274
Hirigintzako sarrerak.....	645	29
Jasotako transf. eta dirulaguntzak	2.250	3.219
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	4	5
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	2	2
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	4.305	4.688
Langileen gastuak.....	(811)	(844)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(458)	(231)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(1.532)	(1.422)
Ibilgetua amortizatzea	(569)	(508)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(3.370)	(3.005)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	935	1.683
Arruntak ez diren beste partida batzuk	8	8
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZA	943	1.691
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	115	(29)
EKITALDIKO EMAITZA	1.058	1.662





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Oiongo Udala Administrazioako toki-erakundea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerbitzu jakin batzuen zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare sarrerak, diru-laguntzak eta kreditu eragiketak.

Ekitaldian ezargarrria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 3/2004 Foru Arauak jasotzen du, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, eta 56/2015 Foru Dekretuak, Arabako toki-erakundeen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2019ko ekitaldirako aurrekontua 2019ko otsaileko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Arabako Aldizkari Ofizialean 2019ko martxoaren 3an eman zen argitara.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kreditu txertaketa	Kreditu gehigarria	Kreditu gaikuntza	Transferentziak		GUZTIRA
				+	-	
4. Transferentzia arruntak	-	-	229	-	-	229
8. Aktibo finantzarioen barioa: Geldikina	1.457	102	-	-	-	1.559
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	1.457	102	229	-	-	1.788
1. Langileen gastuak	149	14	200	-	-	363
2. Ondasun arruntan eta zerbitz. gastuak	-	47	29	1	(1)	76
4. Transferentzia arruntak	-	1	-	-	-	1
6. Inbertsio errealak.....	1.308	40	-	3	(3)	1.348
GASTUAK GUZTIRA	1.457	102	229	4	(4)	1.788

Alkatetza-dekretu bidez onartutako Aurrekontua aldatzeko 8 espedienteek gastuen hasierako aurrekontua % 47 gehitu dute.

Halaber, aurreko taulako aldaketez gain, Udalbatzak 2019ko maiatzean konpromiso-kredituak onartu zituen 2020tik 2023ra bitarteko aurrekontuen kontura, guztira 380.000 euroan.

2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2020ko otsailaren 21eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra, berriz, 2020ko irailaren 16ko Udaltzakerak onartu zuen.

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehaztuta:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrera
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	625
Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga	161
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	208
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera	83
1. KAPITULUA GUZTIRA, ZERGA ZUZENAK	1.077
Eraikuntzen, instalakuntzen eta obren gaineko zerga	97
2. KAPITULUA GUZTIRA, ZEHARKAKO ZERGA	97
Zabor-bilketa	130
Jabari publikoaren erabilera pribatua-zerb. hornitzeko enpresak eta telefono-konpainiak	65
Ibiak eta aparkalekuen erreserbak	15
Bestelako sarrerak	22
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK 3. KAPITULUA GUZTIRA	232
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	1.406

Udalak 2006an Arabako Errioxako Ur Partzuergoari ur-hornidura eta -saneamenduko udal zerbitzuak eskualdatu zizkion eta horregatik ez da jaso dagokion tasa aurreko taulan.

A.4 TRANSFERENTZIAK, DIRULAGUNTZAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2019an transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak:

Kontzeptua	Euroak milakotan	
	Arruntak	Kapitalez.
ARABAKO FORU ALDUNDIA		
FOFEL: Itunpeko zergetan partaidetza - konturako ordainketak 2019	1.779	-
FOFEL: zerga itunduetan partaidetza 2018 likidazioa	99	-
Ingurumeneko enplegu-plana 2019/2020 (7 kontratu)	79	-
Estibaliz kaleko ibilgailuen sarbidea berrantolatu	-	19
Laureano Iribarria eta ondoko kaleak urbanizatzeko obraren ordainsariak	-	8
Kulturartekotasuna, kaleko hezkuntza, gazteriaren jard. eta beste txiki batzuk	21	-
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA		
Lanbide-Kuadrilla: eskualdeko enplegu-plana 2019/2020 (5 kontratu).....	45	-
Lanbide-Kuadrilla: eskualdeko enplegu-plana eremu kaltetuetan (2 kontratu).....	20	-
Lanbide: tokiko enplegu-plana 2019/2020 (4 kontratu)	38	-
Lanbide: gazteentzako enplegu-plana 2019/2020 (2 kontratu)	18	-
Osakidetza: osasun zentroaren mantentze-lana	58	-
Bigarren hezkuntzako irakaskuntza-gelak	36	-
SPRI Poyal-Santa Lucía kalea berriz urbanizatzea	-	46
EEE: argiteria Ledera aldatzea	-	5
bake epaitegia eta liburutegia	4	-
BESTELAKOAK		
Genero indarkeriaren Estatuko Ituna eta itundu gabeko zergak	6	-
KAPITULUA GUZTIRA	2.203	78

Itunpeko zergetan parte hartzeagatiko sarrerak (FOFEL) diru-bilketa balioespenak oinarri hartuta kalkulaturiko konturako kobrantei dagozkie, hurrengo urtean kitatutakoak. 2019an emaitza positiboa izan zen 42.008 euroan eta Udalak sarrera hori 2020an erregistratu zuen.

Inbertsioak besterentzeagatiko sarrerak:

Sarreren kapitulu honetako sarrerak era honetara xehakatzen dira:

Kontzeptua	Euroak milakotan	
	Zenb.	
Pozo Fonso kaleko industria-eremu berriaren urbanizazio kuotak	434	
El Poyal-Santa Lucia kalean industria-gunea urbanizatzeko kuotak	136	
Planeamenduaren aldaketa eraikigarritasuna % 15 handitzea	75	
INBERTSIOEN BESTERENTZEA 6. KAPITULUA GUZTIRA	645	



Finantzaketako desbideratzeak

Ondotik, Udalak 2019ko abenduaren 31n Geldikin erabilgarria kalkulatzeko baliatutako finantzaketako desbideratzeak xehakatu dira:

	Euroak milakotan
Kontzeptua	Zenb.
Enplegu-planak 2019-2020	137
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana Laureano Iribarria kalea eta albokoak urbanizatzea ..	160
Pozo Fonso kaleko industria-eremu berriaren urbanizazio kuotak	389
El Poyal-Santa Lucía kalean industria-gunea urbanizatzeko kuotak	131
Dirulaguntza El Poyal Santa Lucía kalea	45
Planeamenduaren aldaketa: eraikigarritasuna % 15 handitzea	75
GUZTIRA	937

Udalak 2019ko diru-sarrera modura aitortu zuen foru eta erkidegoetako enplegu planek emandako zenbatekoa, zeinak udalak langileak 6 eta 8 hilabeterako kontratatzea eragin baitzuen, 2020ko ekainera arteko indarraldiarekin; beraz, geldikinetik 136.784 euro gorde dira 2020an kontratuak finantzatzeko.

AFAk 2018an Udalari 887.926 euroren dirulaguntza bat eman zion Laureano Iribarria kalea urbanizatzeko eta urte horretako diru-sarrera modura aitortu zen; obra 2020ko otsailean amaitu zen eta honenbestez, aurreko taulako desbideratzea gertatu zen.

Udalak 2019an industria-gunean 2 jardueraren hirigintzako kuotak kitatu zituen, 2019ko abenduaren 31n amaitu gabe zeudenenak; horren ondorioz, finantzaketako desbideratzeak sortu ziren.

Hirigintzako aprobetxamenduetan udal-partaidetzak eragindako diru-sarrerak inbertsioak egiteko erabili behar dira, lehentasuna emanez etxebizitzaren eraikuntzari eta urbanizazio-lanei. 2019ko apirilean kitatu zen 75.161 euroren diru-sarrera udalak 2019ko abenduaren 31n egikaritzeko zeuden inbertsioak finantzatzeko erabili zuen.

Udalak ondare-kontabilitatean dirulaguntzek eragindako sarrerak aitortu zituen laguntza ematean. Diruz lagundutako egitateen gauzatze-maila kontuan hartzeko, 2019ko abenduaren 31ko ondare garbia 861.607 euro murriztu beharko litzateke.



A.5 LANGILEEN GASTUAK

Gastu-kapitulu honen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Gastua 2019	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 19.12.31
Korporazio-kideak (alkatea eta zinegotzia).....	33	-	2
Funtzionarioak.....	241	6	5
Langile lan kontratudun finkoak	120	5	(a) 5
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	37	-	-
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak	148	-	20
Ordainsarien guztizko partziala	579	11	32
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	174		
Pentsio planetarako ekarpenak	10		
Aseguruak, prestakuntza eta beste	30		
GUZTIRA	793		

(a) 2 plaza behin-behinean bete dira.

Langileen ordainsariak % 2,25 eta % 0,3 gehitu ziren, 2019ko urtarrilaren 1etik eta uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, hurrenez hurren.

Udalak 2019an 14 langileri aldi baterako lan ezintasunagatik Gizarte Segurantzako prestazioak osatu zizkien, baina nominak kitatzean ez zuen zehaztu osagarri horien zenbatekoa.

Altak

2019ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kop.
Karrerako funtzionarioa (zerbitzuetako ofizialaren 2 lanpostu)	2
Bitarteko funtzionarioa (2 langile)	2
Lanpostu hutsa	2
Aldi baterako lan kontratupekoak (20 langile)	20
Obra-kontratua (Lanbide programa eta AFA langabetuen kontratazioa).....	20
GUZTIRA	24

Lanbideren eta AFaren enplegu-programen kontratazioak 2020ko maiatzera eta ekainera arte luzatu ziren, 2019ko aurrekontuko 148.170 euroren kredituak konprometituta zeudela 2019ko abenduaren 31n.



A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

2. kapituluan erregistratzen dira ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; ondotik xehakatu ditugu kontzeptu esanguratsuenak:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	544
Landa bideak eta kaleak.....	175
Eraikinak garbitzea.....	124
Elektrizitatearen eta gasaren hornidura	74
Konponketak eta mantentze-lanak	171
Bulegoko materiala	16
Hornidurak	369
Eraikinetako energia elektrikoa eta argiteria publikoa	209
Ur-, gas- eta bestelakoen hornidura	61
Kirol instalazioen garbiketa-zerbitzua eta kudeaketa	99
Komunikazioak	13
Eraikinen aseguruak eta beste	12
Hainbat gastu	224
Jaiak	139
Zergak, gastu juridikoak, dirulaguntzak eta beste hainbat gastu.....	43
Kanpoko enpresek egindako lanak.....	42
Kanpoko enpresek egindako lanak:	353
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla Zabor-bilketa	133
Kale garbiketa.....	113
Parkeen eta lorategien mantentze-lana:	82
Beste txiki batzuk.....	25
Lokomozio-gastuak	5
12 zinegotzi bileretara joatea	8
Zinegotzien 4 udal talderi dirulaguntzak	6
GUZTIRA	1.550

Udalak 2020ko ekitaldiaren kontura fiskalizazio-gai izan den ekitaldiko erosketak erregistratu zituen, 67.432 euro, eta ondare-kontabilitatean, aurrekontuari aplikatzeko dagoen gastu modura Kuadrillari egindako transferentzien gastuak, 6.231 euro; honenbestez, Geldikina 73.644 euroan murriztu behar litzateke.

Hona hemen 6. kapituluko inbertsioen xehakapenak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Gastua	Konpro- misoa (*)
Iribarria kalea urbanizatzea, oztopoak kenduta, eta sareak osatzea (A.9)	1.029	180
Aparkalekua Nueva eta Florida kaleen inguruan	66	-
Pozo Fonso kalea urbanizatzea, ekialdeko zatia	34	287
Estibaliz kaleko 7, 9 zk. sarbidea berrantolatzea	34	-
Azpiegiturak: ordainsariak, Takonerako aparkalekua eta beste	47	-
Sindikatu-etxea eskuratzea (5. eta azken epea)	49	-
Argiteria led argiekin ordezkatzeko Aldundiko hirib. eta Nafarroako hiribidean	25	-
El Poyal kalea berrurbanizatzea	-	108
Orga jasotzailea, zine proiektorea, futbol-zelaiko galdara eta beste txikiago batzuk	43	-
GUZTIRA	1.327	575

(*) 2019.12.31n konprometitutako kredituak, egikaritu gabeko obren kontzeptuan.

A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK

Hona hemen gastuen 4. kapituluaren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Gastuak	
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK		97
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	38	
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla hirigintzako udal zerbitzuari laguntza	17	
Barriobusto eta Labrazako kontzejuak	42	
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK		105
San Bizente ikastola Koop. S.: mantentze- eta funtzionamendu-gastuak	85	
Sociedad deportiva Oyonesa eta San Vicente pilota taldea	11	
Irule kultur elkarte (2019) eta musika-eskola	9	
DIRULAGUNTZA ZUZENAK		14
Kultur elkarteak (11 hirugarren)	12	
Elkarte humanitarioak (2 hirugarren)	2	
BESTELAKOAK		7
Eudel eta Irule kultur elkarte (2018)	7	
GUZTIRA		223

Kuadrillak foru-araudiak sortu eta araututako tokiko erakundeak dira, udalek kudeatzen dituztenak, eta eskualdeko udalek eskuordetzen edo transferitzen dizkieten zerbitzuak eman ditzakete. Udalbatzak 1998an eta 2016an onartu zuen Kuadrillak oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta zabor-bilketakoak ematea.

Kontzejuak udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundeak dira, eta eskumena dute beren ondarea kudeatzeko (landa-bideak eta erabilera publikoko mendiak, batez ere) eta tradizioz kudeatu izan dituzten zerbitzuak ematen jarraitzeko (11/1995 Foru Araua). Azken zerbitzu hauek direla-eta, FOFELen oinarrizko osagaia banatzean (funtsaren % 27), AFAk 10 udal-zerbitzuren egoera hartzen du aintzat. 2019ko oinarrizko osagai hori banatzean Udalari 474.749 euro eman zitzaizkion eta 2 kontzejuei 31.897 euro, uraren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

hornidura eta saneamendu, argiteria publiko, hilerri eta gizarte zentroetako zerbitzuak emateagatik bertako 191 biztanleei. Udalak bi dirulaguntza izendun eman zituen 2019an bere jarduera finantzatzeko, guztira 41.733 euro, eta bi nukleoetan helbideratutako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren diru-sarrerak laga zizkien, 10.240 euro guztira.

2019an amaitu zen San Bizente ikastolaren mantentze- eta funtzionamendu-gastuak diruz laguntzeko hitzarmenaren indarraldia, eta Udalbatzak beste hitzarmen bat onartu zuen, 2023ko irailera artekoa, eta etorkizuneko aurrekontuetan 380.000 euro esleitzeko konpromisoa hartu zuen.

A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Hona hemen 2019ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

Kontzeptua	Aurrekontu itxiak				Euroak milakotan	
	19/1/1	Baliog.	Kobr.	19/12/31	2019 aurrek. 19/12/31	GUZTIRA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga.....	238	19	41	178	46	224
Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga	161	-	7	154	16	170
Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga	73	24	5	44	15	59
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	98	13	2	83	12	95
Eraikuntzen, instalakuntzen eta obren gaineko zerga	17	-	12	5	7	12
Industria-gunean HHS biltzea eta kanona	5	-	1	4	-	4
Establezimenduak irekitzea	11	-	-	11	-	11
Etkez etxeko HHS biltzea eta kanona.....	70	2	34	34	38	72
Zutoinak, palomillak eta errielak.....	21	-	21	-	4	4
Ibiak eta aparkalekuen erreserbak	5	-	-	5	1	6
Beste txiki batzuk.....	7	-	3	4	5	9
1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala	706	58	126	522	144	666
4 eta 7 kap. Transf. eta dirulag. arrunt eta kapit.....	1.348	273	800	275	165	440
5. eta 6. kap. Ondare-sarrerak eta inb. err. besterentzea...	70	69	-	1	347	348
GUZTIRA	2.124	400	926	798	656	1.454
Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura						(523)
Aurrekontuko kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi						931

Udalak 522.843 euroan balioetsi du 2019ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako zuzkidura eta kobrazinekotzat jo ditu 2018a baino lehenagoko saldo guztiak eta % 75ean eta % 25ean zuzkitu ditu 2018 eta 2019ko saldoak, hurrenez hurren.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

KONTRATUA	Euroak milakotan					AKATSAK	
	Data	ESLEIPENA Prozed. Zenbat. (a)	Subro- gazioa	Gastua 2019	A	B	
1. Kiroldegiaren kudeaketa (3 urte).....	mai-2016	Irekia 178	4	59	A1,2	B	
2. Gune berdeen mantentze-lanak (2 urte).....	api-2018	Irekia 179	3	77	A1,2		
3. L. Irribarria eta ondoko kaleen zaharberitze-lanak .	abe-2018	Irekia 1.210	-	1.029	A1	B	
GUZTIRA		1.567	7	1.165			

(a) BEZa sartuta esleitutako zenbatekoak.

AKATSAK	Esped. kop.	Esleip. zenbat.
A OROKORRA		
1. Kontratazio-mahaia: bokal bakarra eta hiru behar dira.....	3	1.567
2. Esleipen-irizpideak: berme-epa baloratzen du zerbitzuko kontratuetan.....	2	357

B ESPEDIENTEAREN BERARIAZKOA

Beste erosketa batzuk

Gainera, 2019ko beste erosketa batzuk aztertu ditugu eta ikusi dugu ekitaldi horretan 113.121 euroren kostua izan zuen kale-garbiketa zerbitzua prozedura negoziatu bidez kontratatu zela 2009an, 2021era arteko indarraldiarekin; ordea, zerbitzu-kontratuen gehieneko iraupena 6 urtekoa da. Gainera, prozedura negoziatua baliatu zen, prozedura irekia beharrean.

Halaber, erosketa txiki modura izapidetutako erosketak ere badaude, prozedura ireki sinplifikatu arrunt eta laburtu bidez egin beharrean (SPKL 159.6 artikulua):

KONTZEPTUA	Gastua
Argindarraren hornidura (2 enpresa).....	240
Gas-hornidura	62
Udal eraikinen garbiketa	55
Taldeak eta jarduerak kontratatzea Esker emate jaietan	50
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU ARRUNTA GUZTIRA	407

KONTZEPTUA	Gastua
Instalazio elektrikoaren mantentze-lana (2 enpresa)	40
Argiteria publikoan LED argiak hornitu eta instalatzea.....	24
Eraikinen aseguruak, bizitza eta erantzukizun zibila (2 enpresa)	23
Gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzua (BEZetik salbuetsia).....	18
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUA GUZTIRA	105





HKEE-REN 2019KO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINIKO ALEGAZIOAK

ONDORIOEI EGINIKO ALEGAZIOAK

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

- a) Udalak 2019ko otsailean hasi zuen bide-garbiketako kontratuaren espedientearen berrikusketa. Jasota dago idazkari kontu-hartzailearen 2020ko martxoaren 3ko txostena. Bertan, ondorioztatzen da 2009ko uztailaren 23ko kontratuak, Fomento de Construcciones y Contratas SL enpresari esleituak, deuseztasun-akatsak dituela, ezarritako legezko prozedura osorik eta guztiz baztertuta idatzi zelako.
- a. Aplikatutako kontratazio-prozedura prozedura negoziatua izan da, eta prozedura irekia aplikatu behar zen.
 - b. Gauzatutako kontratuak araudiak ezarritako gehienezko epea gainditzen du.
- b) 39/2015 Legearen 106.1 artikulua kontratuaren deuseztasuna ofizios aitortzera behartzen du Udal hau, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren aldeko irizpena jaso ondoren.
- c) Kontratua deuseza dela aitortzen bada, deuseztasun-adierazpenaren ondorioak zortzigarren kontsiderazioan deskribatzen dira, honako honetan, hain zuzen:
1. 30/2007 Legearen 35. artikulua ezartzen ditu deuseztasun-adierazpenaren ondorioak, eta hau adierazten du: deuseztasun-adierazpena irmoa denean, kontratua bera ere, beti, deuseztatu egingo da, eta likidazio-aldian sartuko da; aldeek, ondorioz, kontratuaren indarrez jaso dituzten gauzak elkarri itzuli behar dizkiote, eta hori ezinezkoa bada, gauzen balioa itzuliko diote elkarri.
 2. Errudunak kalteen ordaina eman beharko dio beste aldeari. 3. zenbakian hau ezartzen du: baldin eta, administrazioak kontraturen bat deuseza delako adierazpena egiten duenean, zerbitzu publikoari eragozpen larriren bat sortzen bazaio, kontratu horren ondorioak jarraitzea xedatu dezake erabakian bertan, eta klausula berberekin gainera, harik eta galerak ekiditeko presazko neurriak ezarri arte.
 3. Ez dirudi bideragarria kontratua deuseza adieraziz gero aldeek kontratuaren indarrez jaso dituzten gauzak elkarri itzuli ahal izatea.
 4. Eta informatzaile honek ezin ditu zenbatu elkarri gauzak itzultzea ezinezkoa bada jasotako zerbitzuen balioa itzuli behar izatearen ondorio praktikoak (*ex lege* betebeharra, kontratu-harremanetik kanpokoa; izan ere, deuseztasun-adierazpenak kontratu-betebeharrak erator daitezkeen kausazko lotura bat ez egotea dakar berarekin).
- d) Baldin eta, administrazioak kontratuaren deuseza delako adierazpena kontratuaren epea amaitu aurretik egiten duenean (2021eko uztailaren 31), eta zerbitzu publikoari eragozpen larriren bat sortzen bazaio, kontratu horren ondorioak jarraitzea xedatu dezake erabakian bertan, eta klausula berberekin gainera, harik eta galerak ekiditeko presazko neurriak ezarri arte.

- e) Txostenean, halaber, Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko auzien salaren 2018ko ekainaren 26ko Sententzian azaldutako irizpideak jasotzen dira (rec.2011/2016); sententzia horrek ofiziozko berrikuspenaren mugak lantzen ditu zuzenean, honako hauek, hain zuzen:
- a. «Komeni da gogoraraztea egintza deusezen berrikuspena betetzera deituta dagoen helburua dela (APELen 102. artikuluan ezarritakoa) administrazio-egintza batzuek dituzten deuseztasun-akatsak errotik edo osorik garbitzea erraztea, eta horiek aurkaratzeko epe laburrak igarotzearen ondorioz behin betiko ez finkatzearen xede argia dauka. Horrenbestez, aurkaratzeko aukerak areagotu nahi dira, segurtasun juridikoarekin orekatuta, eta baliogabetasun-maila larriago batek eragindako egoera bat denboran betiketuta ez geratzea eta akats hain nabarmena izanagatik ondorio juridikoak ez eragitea lortu nahi da.
 - b. Legezketasun-printzipioak eskatzen du administrazio-egintzak ordenamendu juridikora egokitzea, eta Administrazioak legez kanpoko egintzak berrikusi ahal izatea. Aitzitik, segurtasun juridikoak, gure ordenamendu juridikoaren funtsezko balioa izanik, eskatzen du emandako administrazio-egintzek, eta, beraz, horiek sortutako egoerek, egonkortasuna izatea eta epe jakin batzuetatik kanpo ezin berrikusi izatea. Hala ere, egintzaren legez kanpokotasunak publiko orokorraren interesari eragiten dionean, arau-hauste bereziki larriak direnean, sistemaren beraren aurkakoa izango litzateke horiek mantentzea, erabateko deuseztasun-kasuetan gertatzen den moduan, eta, beraz, egintza horiek berrikusteko ez dago epe jakinik (APELen 102. artikulua).
 - c. Deuseztasun-adierazpena bereziki larri eta ageriko kasuetara mugatuta geratzen da, hartzaileek denbora luzez baliozkoak direla uste izandako egintzak berrikusteko ekintza ordenamenduak ezarritako ohiko aurkaratze-epeetatik kanpo gauzatzeko aukera ematen baita. Auzitegi Gorenaren 2001eko abenduaren 19ko, 2006ko abenduaren 27ko eta 2007ko abenduaren 18ko sententziek ezartzen duten moduan, «[...] APELen 102. artikulua helburua da, hain zuzen ere, administrazio-egintzen deuseztasun-akatsak errotik edo erabat garbitzea erraztea, horiek aurkaratzeko epe laburrak igarotzeak horiek behin betiko ezin aurkaratzerik ez ekartzeko helburu argiarekin. Horrenbestez, prozedura-bide horrekin aukerak areagotu nahi dira erabateko deuseztasuneko eta denboran iraunarazitako kausa batek eragindako egoera batek ondorio juridikorik ez ekartzeko, nahiz eta akatsa hain garrantzitsua izan».
